

EKIALDEKO BAKEZKO IRAULTZA
EDO
ZERGATIAK AITORTZEKO AUSARDIA
Komunikabideen arduradunei

1. XX. mendeko gertakiririk aipagarrienetarikoen aurrean, hainbat komunikabide pribatu nahiz publikoren jokaera, Euskadin, nahiko etsigarri eta susmagarria da; areago oraindik gertakari horiek erlijio aldetik itxaropentsuak izanez gero.

Ikerketazko kazetaritzara jo nahi den honetan, gertakarien zergatiak, sustraiak arakatu nahi direnean, gertatzen denaren berri emateaz eta errealitatea argi eta garbi adierazteaz etengabe hitz egiten denean, ez ote da urria, eskasa komunikabide ahaltsu horiek eskaintzen digutena?

Politika gaietan adituak diren Europako askok, Ekialdekoek batez ere, komunismoaren porrota maila guztietan aldarrikatzen dutenean; alderdikierarik eta aurreritzirik gabeko kazetariak sekula baino ozenago aitortzen dutenean Ekialdeko askatasunaren, itxaropenaren, berrikuntzaren, bakezko eta askatasunezko kulturaren eragilerik errimeena Joan Paulo II.a dela, Euskadiko komunikabideek, kazetariak -hitzez hain askatasun zale eta aurrerakoi direnak, eurek diotenez, justiziaren eta egiaren alde daudenak-hori aitortzeko zintzotasunik eta ausardiarik ba ote dute?

Zer diote Poloniatik, Txekoslovakiatik, Hungariatik, Errusiatik eta abarretik datozen ahotsek?

Noren eskutan daude Euskadiko komunikabideak eta batez ere euskal komunikabideak? Ba ote da autokritikarako gaitasun eta ausardiarik?

Komunikabide horien azken aldiko jokaera aztertuz, ondorio honetara hel gaitezke: profesionaltasun eskasa, erlijioaren aurka-ko joera lotsagabe eta atzerakoia; aurreritzi ugari. Azken batez, joera prestueza guztionak diren komunikabideetarako!

2. Zeintzuk dira, komunikabideen artean, Aita Santua askatasunaren eragile aitortzen eta ezagutzen dutenak? Etengabe egiaren iragarle iraun ondoren, luzaroan ez zaio merezimendu hori aitortu, eta orain asko eta asko harriturik daude errealitatearen aurrean.

Azkenez, askatasunaren eragiletzat jotzen bada, ez ote zaio sinesgarritasun bera aitortuko etorkizunean, giza eskubideak ez betetzeaz isildu gabe egiten ari den salakuntzari? Mendealdeko gizatasunik gabeko kapitalismo giroan sexuaren, nagusikeriaren eta diruaren gehiegikeriaz egindako salakuntzari entzungor egingo ote zaio?

Gizartea Espainiako Estatuan, eta Euskadin batez ere, hondamendira doa kazetari-inkesta batzuren arabera; aipaturiko hiru gauza horien morrontzapean erori da.

3. Non ageri da, komunikabideetan, gizakiaren aldeko ausardia, egiaren bidez eta ez itxura hutsez? Ez ote ditugu begiak irekiko Ekialdeko askatasunaren eta haren zergatien argitara? Gai ote dira komunikabideak behar den ausardiaz egia ikusi, aitortu eta zabaltzeko?

Kazetari-profesionaltasunak ez ote du eskatzen egia ikustea, ikuseraztea, aurreritziak alde batera uztea, herriarekin sentibera izatea, herri horren gehiengoa kristaua bada ere? Profesionaltasuna ala pentsaera politikoen morrontza euskal komunikabideetan?